

Miguel Trilloren “Afluencias. Costa Este-Costa Oeste” erakusketa Montehermoson ikusgai irailaren 24ra arte

Bihartik, uztailak 13, irailaren 24ra arte, Miguel Trillo artista eta argazkilariaren “Afluencias. Costa Este-Costa Oeste” erakusketa ikusi ahalko da Montehermoso kulturuneko ur-biltegian.

Kultura, Hezkuntza eta Kiroleko zinegotzi Estíbaliz Cantok eta egileak berak aurkeztu dute gaur erakusketa.

Trillori tribu urbanoen argazkilari deritzote, lau hamarkadatan buru-belarri aritu baita azpikultura *undergroundeko* gazte mugimenduak dokumentatzen.

2014an, Kultura Ministerioko Museoen Zuzendaritza Nagusiak “Afluencias. Costa Este-Costa Oeste” erakusketa aurkeztu zuen Tabakalera izandakoaren aretoetan, Javier Díezek komisariatua. Horrek Miguel Trilloren ibilbidea biltzen du, eta 2010-2014 aldian egindako “Costa Este-Costa Oeste” koloretako seriearekin burutu zen.

Proiektuak hiru kontinentetako hirietara (Hanoi, Ho Chi Minh hiria-Saigon, Rabat, Casablanca, New York eta Los Angeles) eraman zuen, eta lan horixe ikusi ahalko da Montehermoso kulturuneko ur-biltegian irailaren 24ra arte.

Guztira 80 argazki dira, konforme ez dagoen eta “kontran” dabilen gazteria baten lekuko, garaia, jatorria edo ideologia edozein delarik, estetika komuna sortu eta mundura identitate globala islatzeko gauza baita. Miguel Trillok Gasteizen egiten duen lehen erakusketa indibiduala da.

Javier Díez —erakusketaren komisarioa—, Begoña Torres, Almudena Cruz Yábar eta Gerry Badgerrek idatzitako testuak biltzen dituen katalogoak osatzen du erakusketa.

“Afluencias. Costa Este-Costa Oeste”, de Miguel Trillo, en Montehermoso hasta el próximo 24 de septiembre

La exposición fotográfica “Afluencias. Costa Este-Costa Oeste” del fotógrafo y artista Miguel Trillo, podrá verse en el Depósito de Aguas del Centro Cultural Montehermoso desde mañana 13 de septiembre hasta el próximo 24 de septiembre.

Lo han presentado hoy la Concejala de Cultura, Educación y Deporte del Ayuntamiento, Estíbaliz Canto, y el propio autor.

Trillo, fotógrafo de tribus urbanas, ha centrado su obra fotográfica desarrollada durante cuatro décadas de incansable labor, en documentar los movimientos juveniles de la subcultura underground.

La Dirección General de Museos del Ministerio de Cultura presentó en el 2014, en las salas de la antigua Tabacalera, “Afluencias. Costa Este – Costa Oeste” comisariado por Javier Díez, una exposición que recorre la trayectoria de Miguel Trillo, y culmina en la serie en color “Costa Este -Costa Oeste” realizada entre 2010- y 2014.

Es este proyecto del artista, que le ha llevado por ciudades de tres continentes: el asiático, el africano y el americano (Hanói, Ho Chi Minh-Saigón, Rabat, Casablanca, Nueva York y Los Ángeles), el que se presenta en el Depósito de Aguas del Centro Cultural Montehermoso hasta el 24 de septiembre.

Un total de 80 fotografías que son testimonio de una juventud disconforme y “a la contra” que, independientemente del tiempo, origen o ideología, es capaz de crear una estética común y proyectar al mundo una identidad global. Se trata de la primera exposición individual de Miguel Trillo en esta ciudad.

La exposición se completa con un catálogo en el que se recogen textos de Javier Díez, comisario de la exposición, Begoña Torres, Almudena Cruz Yábar y Gerry Badger.